

Hegelen goizeroko otoitzarena

■ Askotan aipatua da Hegelen notatxoa. Jenako fragmentoetarik: egunkariaren irakurketa goizero hiritarraren matutien errezoa bezanbat dela. Monje katolikoak edo pastore protestanteak matutiak errezatzen dituzte eguna argitu baino lehentxeago, Brebiarioan, gogo itzartua zerurantz jasotzeko. Jainkoarengan begiak ipinirik sartzen dira horrela egun berrian.

Egunkariaren irakurketa begiak mundura zuzentzeko egiten da noski, eta horregatik «matutien otoitz errealista» esaten zion Hegelek. Monjeak otoitzean legez, Moderiakumeak egunkarian ikusten du, non aurkitzen den oraintxe mundu honetan. Hortaz, bada, ohea nekez hustu eta dutxatu eta gero, kafetxo batekin, munduari begirada bat botatzen diogu, titularren axalgainetik bakarrik bada ere, etxetik presaka atera baino lehen.

Imajinatuko duzue ene kabroa, ateraino jaitsi arin-arin eta EGUNKARIA ez dagoela ikusten dudanean. «Banatzaile alu horiek mundua gabe utzi naute gaur ere!». (Bart parradan ibiliko ziren). Eta ez da gezurra Hegelek esaten duena, egingo zenuen esperientzia zeuk ere: egunkaria falta zaizun goizean, desorientaturik bezala gelditzen zara, atzo mundua non geratu ote zen oso seguru ez bazeunde bezala.

Horregatik, mundua zer dabilen egunkariak esaten digu eta, zeinek esan behar digun mundua zer dabilen, bakoitzak oso ondo aukeratzen dugu. Nik ondo aukeratua daukat nirea. EUSKALDUNON EGUNKARIA da. Honek esaten didanarekin nahikoa orientatua ibiltzen naiz jeneralean, niretzako tamaina samarreko ene mundu ez handiegian. Nik ez dut nahi nire munduak nola ibili behar duen Madrildik edo esan diezadaten. Ez Madrildo kazeta probintzianoek, ez probintziotako madrildarrek. Beraz, erabakia daukat, niri, neure munduak esango didala, bera nola dabilen.

Beti ez naiz geratzen oso konforme, hori ere bidezkoa da. Moderatua eta guztientzako izan behar zuen EGUNKARIAK, denok ados ginen horretan: batzuetan iruditzen zait halere, moderazioaren estremismo horrekin, zozoa geratzen dela. Nik uste dut boterearekin kritikoagoa izatea, tradizio

Mundua zer dabilen
egunkariak esaten digu eta,
zeinek esan behar digun
mundua zer dabilen,
bakoitzak oso ondo
aukeratzen dugu.

Nik ondo aukeratua daukat
nirea. EUSKALDUNON
EGUNKARIA da.

zaharra dela prentsa kontserbazaleenean ere beste edonon European, inor eskadalizatu gabe. (Horixe da kontua: hemen ez gaudela beste edonon European. Eta ez dugu esango Afrika ofenditzeko ezer, ezta?). Baina, total, huskeriak. Gustora orrikatzen dut politika, kultura. Enteratzen naiz Iparraldean ez dagoela Indotxina urrutian. Ez dut inoiz ikusi gabe pasatzen Irakurleen Gutunak. Beharbada formularekin ez da osoki asmatu, baina nik uste Lau Literatoen txanda-saioa ideia polita zela (ez litzateke abandonatu behar). Lana hasteko, bihotzez eskertzen duzu aurretik Zabaletaren

marrazki-poematxo liriko fina eta Zakilixuten filosofia sana animoa piska bat jasotzen. Batzuetan egoten da zerbaiten premia.

EGUNKARIA humanoa da. Txikia eta pobrea, baina humanoa. Zoroastro zoragarri batek horoskoporik zorongoenak egiten dizkigu (beti asmatzen du!). Batere inporta ez zaizkidan euskoamerikanoak bat-batean interesatu egiten zaizkit azken orrian, ez dakit zergatik. Eguraldiaren informazioa bera, non humanoagorik? Ikusi egin behar da udan mutikoa kabreatuta, «berrix ere!» eta «beti bezala!» eguraldi txarra izango omen delako asteburuan. Humanogea beharbada (Atlantikoan, ezaguna da, inoiz ez dira seguruak eguraldia eta EGUNKARIAREN banatzailea) harpidedunen zerbitzua bakarrik da. (Dena dela, EGUNKARIAK eguraldia ezin kanbiatu badu, agian ezbanatzaileak bai?). Eta, beno, humanoa eta, nik telebista gutxi ikusten dut, baina benetan txundigarria iruditzen zait, piper bixi-bixi gutzit partikular horrekin, Ines Intxaustiren txoritxo mokokaria da egunero paregabea. Artista, enseiutxo kritikoan.

Mundu hori dena ekartzen dizu EGUNKARIAK etxera (ekartzen dutenean!). Eta liburu eta diska erreseinak, elkarrizketak, eta hainbat bista gehiago gure mundutxikira zabalik goizero. Salvatore Mitxelenak entzuten zituen kanpaiak, «Talan, talan, matutiak goizan», euskaldunak egun berrira deitzen, eta EGUNKARIA aro berrira. Talan, talan, talan, Brebiario zibil berritua daukagu gaurtik aurrera euskaldunok. ■